

Eibartarrok abesti jaiak ta bestelako euskal jaialdiak betetzeko naikoak garala, amaika bidar ikusteko aukera izan dogu. Ez ostera itzaldi ta kultura jardunetan, ezta urrik emon be. Ez gaitazan ardurabakoak izan. Gure euskalduntasuna jakintza arloetaruntz bideratu daigun. S. C. R. Arrateko saloiak irureun inguru jarrileku daukaz. Eibarko euskaldun ugariok beteko al ditugu.

Deitua gelditzen zara.

ERATZAILLEAK

EIBAR

JAKINTZA ASTEA

S. C. R. Arratek eratua, zemendiaren* 10-tik 16-ra Jakintza Aste bat izango dogu. Aurten leenengo astea da, ta apalki jardun bear izan dogu. Dana dala, beste saio* artean lau itzaldi interesgarri izango doguz.

Astelenean, Joan Mari Torrealdaye *Euskera Idatziaren Batasunari* buruz berba egingo dau. Gaur egun, batasunari gai jardungarriena deritxogu. Batasuna premiazkoa dogu euskerearen etorkizunerako. Euskaltzaindi osoa ta euskal idazleok, guztiz murgildurik dagoz arazo onetan.

Martitzenean, Rikardo Arregi izango da izlari. *Euskal Idazleen Eragozpenak* aitatu deuskuz. Batasuna praktikan jarri bear dabenak idazleak diran ezker, gai* au Torrealdayen itzaldiaren betegarri lez artu daikegu.

Eguastenean, irukote au amaitzeko, Andoni Lekuonak erabilliko dauan gaia, *Euskerea ta Erri Nagusiak* izango da. Euskerearen gaurkotasunaz, agerbideren batzuk azalduko ditu. Gaurko bizimoduan, erri nagusietan batez be, euskal giroa* galdu ez daigun.

Barikuan, azkenik, gure errikide Juan San Martiñek *Euskal Poesiaz* jardungo dau. Euskal Poesia indar barriaz berbitu dalarik, barriro be gai erabilgarritzat dogu.

ANAITASUNA

amabosterokoa

18

Euskalerriko Anaia Txikarrak argitaratua

Zuzendaria: JUAN AZURMENDI AIZPURU

Zuzenbidea: Torre, 3, 1.º — Bilbao (5) — Tel. 241467

Urteko ordaiña: 75 peseta

Banakoa: 4 peseta

XVI urtea — 171 gn. zenb. — 1968, urrillak 30

D. L.: BI 1.753 — 1967

GRAFICAS BILBAO — Gordóniz, 28 — BILBAO-12